

HAZIA

Udako 2024 Orreaga

GURE ABERRI EGUNA.

Hemen aurkitzen gara armada frankoaren kontrako garaipena gogoratu eta ospatzeko, geuk Baskoiok Lortutako garaipena. Eta ez bein bakarrik, birritan baizik.

Lehenengo garaipenean gure "ESKUBIDE PIRENAIKOA" berreskuratu genuen eta hortik sortuko ziren Baskoien foruak. Bigarren garaipenak, Baskoiok NAZIO artean izan dugun erakundea. Hau da; **NAFAR ERREINUA.**

Hemen gaude hortaz gaur, abuztuak 15a Baskonia edo Euskal Herriaren independentzia, burujabetza eta sozialismoaren alde borrokatzeko, Nafar ERREPUBLIKA SOZIALISTA eraikitzeko.

Betidanik saiakerak egin izan dira gure herriaren izen ona zikindu eta ahaz eratzeko eta gezurra ba dirudi ere, oraingo XXI garren mendean izanik, gure hizkuntzaren kontrako bortxakeri amaigabeak jasaten dihardugu Espainia eta Frantziako judikatura atzerritarren aldetik. Bai "ley del euskara" ren bidez bai Euskalduna izatearen merituen kontra egiten den saiakera kontratu publikoetan, edozein hizkuntz arrotzei balio handiagoa emonez. Ez dezagun ahaztu Lapurdi, Benafarra eta

Zuberoak pairatu behar duen euskararen ez ofizialtasuna. Horren ondorioa, azterketa ofizialak frantzesez egin behar izatea. Basakeri hauen aurrean, bai gobierno vascongado delakoak, bai gobierno Navarroak, bai ta iparraldeko "Euskal elkargo"tik nabaria den erreakzio falta eta ardura eza erakusten dizkigute.



Geure kultura desagertzen ari da gizarteko arlo printzipaletan hasita, musika, antzerki, zinema edo kirol arloan hasita beste edozein komunikazio eta espezio arloetan.

Gure historia, arbasoen ohiturak eta mitologia ez dira agertu ere egiten heziketa zentruetan.

Kolonizazio eta itotze bidean gabiltza kanpotar kulturek menperaturik.

Guzti hau, PNV bezalako alderdiek onarturik edo EH bilduko kiden negar faltsuen artean adosturik. Eta hori guztia, partidu hauen "Estatus " ekonomi politikoa, Madrileko inguruetan mantentzearen truke. Beraien aitzakia, Euskal Herriko egoera "Espainiaren" barnetik aldatzeko egiten dutela da. Baina benetako helburua, Espainiako erreinuan eroso murgiltzea da haien politikan parte hartu eta haiek identitate ideologikoa baztertuz, Madrilgo espainiar alderdien antzera jokatzeko geure herri Baskoia Espainolizatzen.



GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!!!!!!
GORA NAFARROAKO ERREPUBLIKA
SOZIALISTA!!!!
GORA ATZO ETA GAURKO EUSKAL GUDARI
SOZIALISTAK!!!!

GORA GU TA GUTARRAK!!!!!
hazia@herritarbatasuna.eus

